

entzat. Segituan, aurrera doa dena, ez zaio inori inporta mendi horretan gizon bat hil izana. Interesatzen zitzaidan energia optimista baina krudel hori, denak egiten duela aurrera, aurrean eramanez eror daitekeen oro, baina, aldi berean, bizitzak segitzeko modua emanaz. Esan izan didate heriotza asko dagoela liburuan, baina beste horrenbeste bizitza ikusten dut nik; hildakoak berriz jaiota, kasik heriotza beste erditze... Nondik begiratzen den da kontua.

**Esan izan duzu «bilatzera ausartuz» aritzen zarela. Gakoa zaizu jarrera hori idaztean?**

Bai. Arteko metodologiak baliatzen ditudala uste dut, ikertzearekin zerikusia dutenak, emaitza aurrez ez erabaki, eta galderak egiten hastearekin. Nire lana lotzen dut arakatu, gauzak ulertzen saiatu, eta asko irakurri eta entzutearekin. Horrekin erabakitzen dut zer kontatu eta zer gogoeta utzi nahi ditudan mahai gainean, gero irakurleak beste leku batzuetara heltzeko baliatu ditzan, nahi badu. Horrek ez du esan nahi erabakirik hartzen ez dudarik. Autore posizio bat dut lanarekiko: nire esku dago zer sartzen den eta zer ez. Baina prozesuan ere asko interesatzen zait ezustekoa, testuak eraman nazala aurreikusitako gabeko lekuetara, eta oparitu diezazkida-idea. Hori zoragarria da.

## 'Typical basque'

**HAUR ETA GAZTE LITERATURA**

Imanol Mercero

**F**amiliako kideen arteko harremana, oilaskoaren partizioaren arabera neurtua. Harreman orekatua dugu? Adibidez, nola banatzen dugu oilaskoa etxean? Nork aukeratzen du lehen, nork azken?

Ez da txantxa. Tabua den hizketa-gaia era ulergarri eta grafikoan bideratzea lortzen du.

Mamia deskribatzeko paralelismo literario hauek erabil daitezke: Anthony Browneren *Urdaburutarrak* albumaren gidioa, Federico Delicadoren *Ikaro* albumaren ateraldi surrealista, eta Eider Rodriguezen ipuinetako giza kondizioaren hausnarketa kirurgikoa.

Irakurleen adinagatik edo, amaiera ohi baino gozoagoa izateaz bat, hausnarketa garatuko duen hari narratiboa esan dut sa-

rreran: Labean erretako oilaskoa nola partitzen den familiako kideen artean.

Narratzaileak hirugarren pertsonan hitz egiten digu, ipuin bat kontatzen den eran, eta protagonista lau kideko familia bateko ama da. Ilustrazioen bidez ideiak edo aipuak azpimarratzen dira, eta, nola ez, irakurleari tonua (dramatismo-umore mailak) adierazten diote.

Planteamendu ausarta egiten da, haur irakurleak irtenbidea enpatia dela ulertu behar duela, errudun sentipenean amildu ordez.



### 'Oilasko hegalkak'

**Idazlea:** Eider Rodriguez. **Ilustratzailea:** Arrate Rodriguez. **Argitaletxea:** Erein.

## Birusa gara

**HAUR ETA GAZTE LITERATURA**

Imanol Mercero

**K**ronika kutsua duen eleberria da, neskatoia nerabe baten ahotsean kontatua, 2020ko udaberriko etxealdiaren aitzakiatan. Aldarrikapen sozialak erdigunean jarriarik, etxebetuen drama haragiztatzen duen protagonista eta haren ama ezagutuko ditugu, babesleku batetik bestera, inor kalean ibili ezin zen garaietan.

Protagonistak shock egoeran aurkeztuko digu bere burua –narratzaile rola berak jokatzen duelako–, ingurukoek egiten dizkioten txerak antzemateko ahalmenik gabe, nola eta bere urtebetetze egunarekin ez akordatzeko moduan. Atalez atal, kontakizunak behetik gora egiten du. Desolazio arteko itxaropen izpietan lehenik, behin-behineko *Thelma eta Louise*

eran ondoren, eta patuaren esker onez azkenik.

Testuari unibertso aberats bat sortzeko ahalegina antzematen zaio, erreferentziaz jantzita: kultur mailakoak (sardina saltzaileak eta jostunenak batik bat), lexikoari dagozkionak (*petrikor, lukana...*), eta berariaz sortuak («Seychelleetara begira»...). Erreferentzia hauekin kontakizunak ahots aniztasuna lortzen du, eta aldi berean garai eta leku desberdinetara ainguratzea.

### Etxegabetuak



### 'Etxegabetuak'

**Idazlea:** Nerea Arrien. **Ilustratzailea:** Diego Besne. **Argitaletxea:** Erein.